

ZALDI BASATIA

- Amaaa! Ez nazazu jo. Ail.

Kaixo ni Ane naiz eta nire amak dioenez bihurri samarra naiz.

- Ama ez sartu honetan, aldeee!

Beno esan dizuedan bezala ni Ane naiz eta zazpi urte ditut. Egia esan bihurri samarra naiz baina ez du garrantzirik; oso polita naiz. Urnietako baserri batean bizi naiz eta zaldia da nire ametsetako gauza bakarra. Nire gurasoei zaldia edukitzeko tokia badukagula esaten diet, baina beraiek zera erantzuten didate behin eta berriro:

- Tokia badaukagu, baina dirurik ez!

Egun batez mendira joan ginen eta aurrera gindoazen heinean zeru garbia ilun bihurtzen hasi zen. Bat-batean euri tantak erortzen hasi ziren, geroz eta potoloagak ziren eta han zegoen kobazulo ilun, beldurgarri eta hotz batean sartu ginen. Nik soinu arraro batzuk entzun nituen eta gurasoei esan nien. Hauek aldiz, erotuta nengoela erantzun zidaten eta ni ixil-ixilik geratu nintzen.

Nire gurasoek zera esaten zuten:

- Behin mendira etorriko eta begira zein eguraldi kaxkarra!

Nik berriz ere soinuak entzun nituen eta inorri ezer esan gabe kobazuloan aurrera jarraitu nuen. Nire gurasoak ez ziren konturatu, eguraldiarekin nahiko entretenituta baitzeuden. Aurrera nindoala bi ipurdi iruditu zitzaizkidan, baina bai zera! nire irudipena zen. Badaezpada ez nuen aurrera jarraitu nahi, galtzeko beldurrez bainengoen. Baina ez, nik han aurrean zer zegoen jakin nahi nuen. Aurrera nindoan eta gero eta ilunago zegoen. Lurrean zerbait ikusten nuen eta poxpolu kaxa bat zela ohartu nintzen. Poxpolu bat piztu eta arratoiez betea zegoela ikusi nuen:

- Hau nazka!!! Esan nuen oihuka.

Baina ez dakit nola aurrera jarraitu nuen, baita aurreratu ere; bi ipurdi ikusi nituen, bat handia eta bestea txiki-txikia.

Oraingoan bai, oraingoan egia zen, zera entzun nuelako:

- Iiiii Iijijijiji!!!

Behor bat bere moxalarekin! eta zaldia ere han zegoen.

Behorrari ogi pusketa bat eman nion nire ogitartekotik eta kostata baina jarraitu ninduen moxala atzetik zuela, baina zaldiak ez, zaldia zegoen tokian geratu zen. Behorra eta ogia bertan utzi nituen eta zaldia domatzen hasi nintzen.

Zaldia handia, polita, marroiska, ile luzekoa, basatia eta begi urdinekoa zen. Behorra berriz, zuria, ile motxekoa, mantsoa eta begi marroiekkoa. Moxala ttikia eta bizkorra zen eta hankak, luze-luzeak zituen. Ni hunkituta nengoen, baina era berean desesperatuta: ezin nuen zaldia domatu, saltoka hasten zen Iiiii!! eginez.

Ezin nuen gehiago eta beraz, nire gurasoei deitu nien:

- Ama!! Aita!!

Nire gurasoek ez zidaten entzuten eta berriz:

- Ama!! Aita!!

Oraingoan entzun zidaten eta orduan konturatu ziren ni falta nintzela. Nire bila abiatu ziren eta elkarri oihu eginez aurkitu egin ginen. Iritsi ginen eta esan zuten lehen gauza zera izan zen:

- Ez, ezta pentsatu ere!

Ni negarrez hasi nintzen eta nire aitak errukituta baietz esan zidan eta amak onartu egin zuen.

Kostata atera genituen behorra eta moxala, baina ... zaldia falta zen! Nire aita ostikada eder batez, arkaitz puntadun baten kontra bota zuen. Ama berriz, eskuan ozkada bat eginez lurrean zorabiatu utzi zuen eta ni, lurrera bota ninduen soilik.

Han utzi gintuen denak lurrean botata eta zaldiak momentu hori aprobetxatu zuen bere familiarengana joateko. Hura ikustean motxilan genuen soka bat hartu eta pixkanaka-pixkanaka

irteerara hurbilduz... zas!!! zaldia sokaz lotu eta zera esan genuen:

- Errezena egina dago!

Baina, bai zera! ikusi behar zen zaldia saltoka eta nire aita sokari helduta gora eta behera. Laguntzearren nik aitari eutsi nion, baina han ikusi behar gintuzuen biak gora eta behera. Ondoren amak eutsi zidan eta bete samarra dagoenez, zaldia guztiok altxa ezinik geratu zen.

Zaldia oso nekatuta zegoela antzematen zen, baina hala ere irrintzika eta basakeriak egiten jarraitzen zuen.

Gu sufritzen ari ginen bitartean behorra eta moxala bapo jartzen ari ziren: moxala amaren errapetik esnea edaten ari zen eta behorra aldiz, moxala edaten ari zen bitartean, inguruko belarrak jaten ari zen eta nik esaten nuen:

- Ez dago eskubiderik! Ez al du ikusten gu zein egoeratan gauden, ala?

Baina nire gurasoek kasurik ez. Orduan nik zera pentsatu nuen: beraiek niri kasurik ez, ba nik beraiei ere ez. Momentu hartantxe laguntza eskatu zidaten eta nik jasan ezinik lagundu egin nien.

Kostata baina denok etxera iritsi ginen. Aitak ea osorik geunden galdetu zigun eta ezer erantzuteko astirik gabe bakoitza bere egin beharretara joan ginen.

Ama albaitariari deitzeko telefonoaren bila zijoala nire panpinen etxetxoarekin estropoz egin, lurrera erori eta erdiko bi hortzak hautsi zituen. Aita berriz, sofan telebista ikusten ari zela, sofa hautsi eta lurrera erori zen. Eta niri, moxalari atzeko hanka sendatzen makurtuta nengoela, buru gainean kaka egin zidan.

Albaitaria azkar etorri zen eta guztiak egoera hartan ikusita, kaixo esan eta basati haiek ikustera joan zen. Guk bitartean ingurua eta gure buruak txukun-txukun jarri genituen. Albaitaria begi morea zuela sartu zen gure etxera abereak zer moduz zeuden esatera eta lehenengo gauza hauxe esan zuen:

- Ez daude batere ahulak!

Eta bigarrena:

- Oso indartsu eta sano daude.

Eta hirugarrena:

- Jendea dagoen tokian ez itzazue aske utzi.

Azkenik ostikada batez agurtu zuen zaldiak albaitaria eta denok parrez amaitu genuen, baita albaitariak berak ere.